BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN, 2021-2022 IKASTURTEAN, "MUSIKARIAK IKASTETXEETAN" EUSKARAZKO HEZKUNTZA-PROGRAMA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA, HONAKO MAILA HAUETAKO IKASLEENTZAT: BIGARREN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK, BATXILERGOA ETA ERDI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETAKO ZIKLOAK.

Heziberri 2020 Hezkuntza Sailak gure hezkuntza-sistema hobetzeko onartutako plana da. Plan horren asmo nagusia da 2020rako Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak eta euskal hezkuntza-sistemaren berezko erronkak uztartzea. Helburua bikaintasunerantz eta gizarte justu, kohesionatu eta aktibo baterantz, irmotasunez aurrera egitea da. Heziberri 2020 Planak oinarrizko bi zutabe ditu:

Lehenengo zutabea da gure hezkuntza-sistemak orain arte egindako bide luze eta emankorra. Ibilbide horretan hezkuntza-esperientzia anitz eta arrakastatsuak bizi izan dira, eta horiei esker, hezkuntza-komunitateak partekatutako kultura pedagogikoa eraiki da. Bigarren zutabea askotariko eragileen parte-hartzea da. Hezkuntza guztion ardura da, eta guztion konpromisoa behar du bere hobekuntza, bideragarritasuna eta iraunkortasuna bermatzeko.

Ikasleek hizkuntza arloko gaitasun guztiak eskuratzea da hezkuntza sistema honek duen egiteko nagusienetako bat, eta horrela jasota dago HEZIBERRI 2020 planaren markoan. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumetan ezartzen da zeintzuk diren ikasleek oinarrizko hezkuntzan landu behar dituzten oinarrizko zehar-konpetentziak, eta horien artean dago hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

Bi hizkuntza ofizialen erabileran oreka eta berdintasuna bilatzea da hezkuntza-sistemaren xedeetako bat. Euskarak gizarte-erabilera desorekatua eta ahula du gaztelaniaren aldean, horregatik, euskara hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan adierazpide normala izan dadin bultzatu eta bermatu behar du hezkuntza-eskumenak dituen sailak. Hortaz, Ikastetxeek euskara eta gaztelania landuko dituzte Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek eskuratu ahal izan ditzaten bi hizkuntza horiek ulertzeko eta ahoz eta idatziz adierazteko trebetasunak, eta biak hala biak erabil daitezen eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan.

Helburu hori lortzeko, berriz, hizkuntzak modu integratuan eta integralean landu beharra dago, hizkuntza bakoitzak berezkoa duena landuz eta denek berdina dutena partekatuz. Horretarako, ez da nahikoa ohiko klase emankizunetan lantzen diren gaitasunak jorratzea. Gelako metodologia erabat paradigma komunikatiboetan kokatzeaz gain, eskola esparruko beste hainbat ekimen osagarri ere eskaini beharko zaizkio ikasleari, hizkuntza-gaitasuna eta bat-bateko jariakortasuna bermatu nahi bada.

NOLEGA atalaren programek bat egiten dute helburu honekin. Atal honek ahozko erabilera areagotzeari begira ekimenak bideratzen ditu, euskararen erabilera eskola-giroan bermatzeko, euskara hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan adierazpide normala izan dadin. Eskola giroa aipatzen denean, oso zentzu zabalean aipatzen da. Izan ere, barne hartzen du ikastetxean euskara ikasteko klase emankizun formaletatik kanpora geratzen den baina ikasleak euskara bereganatu, landu, sakondu eta erabiltzeko eragin handia duen une, ekintza eta esparru oro. Eremu urriko hizkuntzen kasuan, Soziolinguistikako adituek gero eta garrantzi handiagoa aitortzen diete ikaskuntza

akademiko hutsaz aparteko suspergarri eta lagungarriei. Ikasleek euskara erabiltzea dute xede inportanteena arlo honetan antolatzen diren ekimenek. Eta ekimen hauek osatzera dator abian jarri nahi dugun “Musikariak ikastetxeetan” izeneko programa. Programa honek helburu argia du: hizkuntzaren ezagutza eta erabilera bultzatzea, musikariak eta ikasleak aurrez aurre jarrita, azken hauek euskal musikara hurbiltzeko asmoz.

Beraz, prozesu honen helburua aipatutako programarekin jarraitzea da. Horretarako, enpresa kontratatzeko beste prozesu bat jarri behar da abian, 2021-2022 ikasturtean "Musikariak ikastetxeetan" hezkuntza-programa eskainiko duena.

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 2021-2022 ikasturtean NOLEGA atalaren ekimenen barruan “Musikariak ikastetxeetan” izeneko euskarazko hezkuntza programa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako honako maila hauetan: Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak, Batxilergoa eta Erdi-mailako Lanbide-Heziketako zikloak.

1.2 Enpresek eta entitateek proposamena aurkeztuko dute. Irizpideak batzeko eta baterako kudeaketa errazteko , ez da loterik egingo. Enpresen eta entitateen ekonomia eskaintza ezingo da izan gehienezko lizitazio-kostua baino altuagoa.

1.3 Gutxienez, **338** **saio** eskaini nahi dira Euskal Autonomia Erkidegoan, 2021eko urritik 2022ko ekainera arte.

1.4 Kontratu honen kontratazio organoa Araubide eta Zerbitzuen Zuzendaritza da, eta bere unitatea kudeatzailea, berriz, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua.

2. MODALITATEA, TOKIAK, DATAK ETA HIZKUNTZA

2.1 Ikastetxeetan saioak modu presentzialean emango dira. Topaketak 2021eko urritik 2022ko ekainera bitartean egitea aurreikusita dago. COVIDek eragindako osasun egoeragatik aurrez aurreko topaketarik burutu ezin bada, saioak streaming-en bidez egingo dira, eta ondorioz, saio bakoitzeko ordainduko den prezioa murriztuko da, ez baita bidaia-gasturik izango. Beraz, ohiko saioaren prezioa 390€koa baldin bada, streamingen kasuan 370,5€ izango da, hau da %5 gutxiago.

2.2 Programaren helburua ikasgelan ikasleen eta musikarien arteko topaketak egitea da, artista bakoitzak azal dezan bere sortze-prozesua, bere lanak euskal tradizio musikalarekin duen lotura eta idazle edo poetekin lankidetzan egindako lanak.

2.3 Ikastaldeak, oro har, 40 ikaslekoak izango dira gehienez, eta 15ekoak, gutxienez.

2.4 Topaketak eskola ordutegian egingo dira eta 90 minutuko iraupena izango dute. Guztira 338 topaketa egingo dira, gehienez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eta publikoetan (ikus II. Eranskina). Saio kopurua lurraldeka banatzeko irizpidea, lurralde bakoitzeko ikastetxe kopuruaren araberakoa izango da. Lurralde batean ikastetxeen

eskaera ezagatik lurralde horri dagozkion saio guztiak egin ezean, horiek beste bi lurraldeei esleitu ahal izango zaizkie.

2.5 Saio guztiak euskaraz izango dira.

2.6 Programa hau kudeatzen duen unitateak (Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Euskara Atalak) programan parte hartuko duten eskaerak hautatuko ditu jasotako eskaeren artean. Enpresa esleipendunaren esku geratuko da ikastetxeekin datak adostea eta horietara joango diren musikariak aukeratzea, betiere kontratuan ezarritako saio-kopurua errespetatuz. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak saioen datak eta emango diren lekuak aldatu ahal izango ditu antolaketa-arrazoiengatik, eta enpresari edota ikastetxeari jakinaraziko die, komunikaziorako gutxienez ere bost eguneko epea errespetatuz.

2.7 Parte hartu duten ikastetxeek programaren balorazio idatzia egingo dute eta ondorioak kontratua kudeatzen duen atalari, Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Euskara Atala, eta entitate esleipendunari bidaliko dizkiete. Azken horrek, berriz, azken memoria egingo du.

3. ANTOLAKETA, TEKNIKA ETA GIZA BALIABIDEAK

3.1. Enpresa esleipendunak nahitaez izan beharko ditu kontratatutako saioak egiteko behar diren giza baliabide eta baliabide tekniko eta material guztiak. Enpresak beharrezko azpiegitura eta ekipo materialak bermatuko ditu, eman behar diren zerbitzu guztiak eman ahal izateko.

3.2 Enpresak koordinazio lanak egiteko arduradun bat izendatuko du. Bera izango da baliabide teknikoen eta giza baliabideen kudeaketaren arduraduna, eta Administrazioko langileekin elkarlanean arituko da.

4. SAIOEN HARTZAILEAK

4.1 Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko zein itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleak izango dira saioen hartzaileak, eta konkretuki:

- Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleak
- Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleak
- Batxilergoko ikasleak
- Erdi-mailako Lanbide-Heziketako zikloetako ikasleak

5. SAIO-ESKAINTZAREN ANTOLAKETA

5.1 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko (Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Euskara Unitatea) kudeaketa-unitateari dagokio kontratuko eskaintza antolatzea, eta Euskara zerbitzua gainbegiratuta, kontratutako enpresarekin lankidetzan arituko da. Antolaketaren barruan sartzen da dagokion deialdia egitea, izena emateko epeak ezartzea, onartutako ikastetxeen zerrenda prestatzea, jardueren jarraipena egitea eta kasuan kasuko erabakiak hartzea.

5.2 Programa honetan ikasgelan egiteko 338 topaketa eskainiko dira: 191 saio 2021eko urritik abendura burutu beharko dira, eta gainontzeko 147 saioak 2022ko urtarriletik ekainera. Aurreko atalean aipatutako ikasmaila horietako ikastetxe guztiak gonbidatuta daude programan parte hartzera, eta eskabidea egin dezakete horretarako.

5.3 Ikastetxeek eskaera entitate esleipendunaren bidez egingo dute eta azken horrek, Hezkuntza Saileko atal kudeatzailearekin batera, topaketak esleituko ditu, deialdian ezarritako irizpideen arabera, eta orobat, topaketa horiek egingo direla bermatuko du.

5.4 Ikastetxeko irakasleak enpresa lizitatzailearekin harremanetan jarriko dira bi aldeen artean jarduera antolatzeko, betiere topaketak entitate esleipendunarekin zehaztu ondoren eta Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak gainbegiratuta.

5.5 Enpresa edo entitate esleipendunek men egin beharko diote Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza-eskaintzaren antolaketari. Beraz, hertsiki bete beharko dituzte sailak ezarritako irizpideak antolaketa-irizpideei eta prestakuntza-jardueren kudeaketari dagokienez. COVIDek eragindako osasun-krisia dela eta, enpresak eta musikariek ikastetxeek eta administrazioek (Udalerriak, Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailak) hartutako prebentzio neurriak errespetatu beharko dituzte.

6. SAIOEN EZAUGARRIAK

6.1 **I. ERANSKINEKO fitxetan** daude jasota Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak saio bakoitzerako ezarritako ezaugarriak, eta gauzatzeko baldintzak. Esleipendun enpresak bete beharreko datuak dira hauek, eta Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzako Euskara Atalean hilero aurkeztu beharko ditu.

- Data
- Lurraldea
- Ikastetxea
- Ikasle kopurua
- Erakunde arduraduna
- Emailea
- Saioa:
    - Helburuak
    - Edukiak
    - Metodologia
    - Ebaluazioa

6.2 Lizitatzaileak garatu beharko ditu programaren helburuak, edukiak, metodologia eta elkarreragina.

6.3 Bestalde, saioetan sortzen den talde bakoitza gutxienez 15 eta gehienez 40 pertsonaz osatuko da.

6.4 Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean integralki babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betez, saioetan parte hartzen duten musikariek Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute. Enpresa

esleipendunak, **saioak eman aurretik**, ziurtagiri horiek aurkeztu beharko ditu programa kudeatzen duen administrazio-unitatean (Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Euskara Atala). **Baldintza hori betetzen ez duen musikariak ezin izango du programan parte hartu.**

Nahi izanez gero, **administrazioak ziurtagiri hori eskatu ahal izango du botere esleitzaile gisa**, eta, horretarako, enpresa lizitatzailearen aurretiazko konpromisoa beharko da (Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren II.2 eta II.2 bis eranskinak); horren bidez, baimena emango zaio botere esleitzaileari datu horiek eskuratzeko, berariaz aurka egiten ez duen bitartean.

6.5 Enpresa esleipendunarekin eta musikariarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, programatutako egunean saiorik egiterik ez badago, enpresa eta ikastetxea beste egun bat adosten saiatuko dira, gehienez ere hilabeteko epean.

7. ENPRESA EDO ENTITATE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa edo entitate esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

7.1 Programa garatzeko behar den ekipo teknikoa eta saioetan parte hartuko duten musikarien kudeaketa antolatu beharko ditu. Lan horien artean daude:

a) Topaketak ikastetxeetan egin behar dituzten egileekin harremanetan jartzea.
b) Programan parte hartzeak dakartzan gastuei aurre egitea, bidaia-gastuak eta dietak barne. Azken bi gastu mota hauek ez dira ordainduko saioak streaming-en bidez egiten badira.
c) Saioak egin aurretik programan parte hartuko duten musikarien sexu-delituen ziurtagiri negatiboak jasotzea eta programa kudeatzen duen unitateari aurkeztea, edo, bestela, programa kudeatzen duen unitateari (Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Euskara Atala) datu horiek eskuratzeko eta egiaztatzeko baimena ematen dioten Administrazio Klausula Partikularren agiriaren II.2 eta II.2 bis eranskinak aurkeztea.

7.2 Entitate esleipendunak bere menpeko langile bat izendatuko du, eta bera izango da koordinazio lanak egingo dituen arduraduna. Hezkuntza Saileko unitate kudeatzailearekin solaskide arituko da kontratu hau egikaritzean sortu ahal diren alderdi eta gorabehera guztietan, eta orobat, kontratatutako zerbitzuak zuzentzeaz arduratuko da. Pertsona horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Gaian ezagutza teoriko eta praktikoa egiaztatzen dituzten formakuntza eta esperientzia izatea.
b) Entitate esleipendunaren ordezkaria izatea, kontratu honen xede diren zerbitzuak egiteko haren jarduna edo presentzia beharrezkoak direnean.
c) Zerbitzua antolatzeko eta Hezkuntza Saileko unitate kudeatzaileak emandako aginduak betetzeko behar den zuzendaritza-gaitasuna izatea.

7.3 Enpresa esleipenduna gai izan behar da aurreikusita dagoen eskariari (338 saio, gutxienez) erantzuna emateko. Egingo den proposamenean euskarazko musikari eta interpreteen kopuru nahikoa izan behar da, eskaintza askotarikoa eta kalitatezkoa bermatuz. Era berean, saioak programaren xede diren hezkuntza etapetarako egokiak izango direla bermatu beharko da.

7.4 Enpresak plan bat garatu beharko du programa ebaluatzeko eta beste bat ikastetxe parte-hartzaile bakoitzeko irakasleekin koordinatzeko. Plan horretan, ikasleek parte hartuko duten saioaren ezaugarriak eta edukia azalduko dira.

7.5 Entitate esleipendunak Hezkuntza Sailari eskatzen dizkion datu eta dokumentu guztiak eman beharko dizkio, saioak gauzatzeak eskatzen duen kudeaketa egin ahal izateko.

7.6 Enpresak programaren azken memoria egin eta unitate kudeatzailean (Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Euskara Unitatea) entregatuko du 2022 ekainaren 30a izan baino lehen. Azken horrek Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzura helaraziko du. Entitateak ebaluaziorako ezarritako barne mekanismoak gorabehera, Hezkuntza Sailak aukera izango du proiektua ebaluatzeko, ezarritako helburuak zenbateraino bete diren egiaztatzeko.

7.7 Goian aipatutako funtzio eta zeregin guztiak euskaraz egingo direla bermatuko da, eta kontratuaren esparruan egindako materialak ere euskaraz egongo dira.

7.8 Entitate esleipendunak, eskola-jarduera aldi baterako eteteko beharra sortzen bada, saioak, Plegu Administratiboetan adierazten den bezala, streaming-en bidez aurrera eramango direla bermatuko du.

7.9 Enpresak barne hartu beharko ditu generoaren ikuspegia eta aukeren berdintasuna, batetik, egingo diren saioetan, eta bestetik, ikasleei aurkeztuko zaizkien autoreetan.

7.10 Enpresa esleipendunaren betebeharra da, saioak eman aurretik, programan parte hartzen duten musikarien sexu-delituen ziurtagiriak aurkeztea.

7.11 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan indarrean dagoen legeria beteko da.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

8.1 Enpresa edo entitateek eskaintza bat aurkeztu beharko dute, berariazko administrazio-baldintzen pleguan ezarritako irizpideen arabera baloratua izan dadin.